

«Langile zein enpresarien kontzientziazioa bilatzen saiatzen gara»

• LEIRE LARRAZABAL

Eraikuntzaren sektorearentzat garai onak dira?

Bai, egia dugu baina datorren urteari begira desazelerazio txiki bat ematen ari dela somatzen da baina oraindik ere 2001ean izan genuen hzkundearen urratsak ikusten ditugu. Halla ere, iazkoa ikaragarria izan zen eta joera hori mantentzea oso zaila da. Eraikuntza, guztia legez, ziklikoa da, hau da, momentu onak, txarrak eta irregularrak dauzka.

Bestetik, eraikuntzan lan istripuak oso ohikoak dira. Zer gertatzen ari da?

Kezkagarria eta asaldagarria da egoera. Eraikuntzan dagoen arriskua agerikoa da eta medioak jarri arren, langileen kualifikazio falta ikusten dugu. Hau da, langileak obrara joan baino lehen ikasi beharko luke.

ASCOVItik zer bultzatzen duzue?

Langile zein enpresarien kontzientziazioa bilatzen saiatzen gara. Kurtsoak prestatzen ditugu baino zerbaiz gehiago ere behar da. Izan ere, obretan segurtasun koordinatzaileaz

arduratzten den pertsona bat izaten da baina langile hori kanpokoia izan beharko luke. Sektorearen bi akats nagusiak kontzientziazio falta eta heziketa eza dira.

Sektorearen beste puntu garrantzitsu bat langile kualifikatu faltarena da. Zer gertatzen da?

Guk gauza bat argi dugu: ikasten ari direnak praktikak egin beharko lituztekete. Kasu askotan, ikasketak egin eta zuzenean sartzen dira lan munduan. Hori ez da bide ez modurik egokiena. Nire iritziz, ikasten ari diren bitartean praktikak egin beharko lituzkete. Hau da, ikasketak eta praktikak tartekatuta behar dira. Modu horretan, langile kualifikatuak lortzea posible litzateke.

ERAILURen sortzaileen artean ere ASCOVik badauka zeresana. Zer dela eta sortu zenuten?

Hiritarrek eraikuntzaren prozesuan parte hartzen duten egileekin erlazio zuzenena izan behar dute. Etxe bat erosi, eraiki edo saltzerakoan eskubideak eta erantzunkizunak argi izan behar dituzte, eta puntu hoiek argi izateko sortu genuen ERAILUR.